

## **KONTROL MOZIOA**

### **SANTA KLARA UHARTEKO ESKU-HARTZEAREN AURREKONTUKO EXEKUZIO JARRAIPENA DELA ETA**

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2019ko abenduaren 13an Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Cristina Iglesias artista Santa Klara uhartean egiten ari den esku-hartzearen kostua hasieran adierazitakoa baino handiagoa izango da.

Joan den azaroaren 21eko udaltzatzen, Kulturako zinegotzi Jon Insaustik adierazi zuen obraren kostua progresiboa izango dela, "aurrekontua aldatu ahala". Horrekin batera, zinegotziak nabarmendu zuen hiriak "kultura alorrean duen inbertsio handienetakoa" dela. Era berean, ihardetsi zuen "bere artea zentsuratzea" dela artistari adieraztea zenbat gastatu dezakeen bere lanean. Hitzek hitz esan zuen: "Guk jarraituko dugu apustu horren alde, daukan kostua daukala".

Beraz, ulertu behar dugu Udal Gobernuak ez duela Cristina Iglesias Santa Klara uhartean egiten ari den esku-hartzearen behin betiko aurrekonturik. Areago, gastua aukeran egingo dela adierazten ari omen zaigu zinegotzia.

Horiek horrela, udal talde honek galderak egin zizkion Ogasuneko zinegotziari, batzordean, gure ustez irregularra den egoera argitzeko. Zinegotziaren arabera, dagoeneko 4,3 milioi euro inguruko kostura iritsi da 1,5 milioi euro inguruko aurrekontua izango zuela iragarritako egitasmoa. Gainera, ez zuen ziurtasunez adierazi ahal izan beste gaitasunirik izango ote zuen. Udal talde honek galdetu zion zinegotziari nolatan bideratu ahal izan den halako dirutza, egitasmoak aurreikusita zuen diru saila ia hiru aldiz apalagoa izanik. Zinegotziaren arabera, soberakinak izan direlako egin ahal izan da egitasmo hori, bestela ezin izango zen egin une honetan.

Era berean, Ekonomia Kudeaketaren zuzendariaren agerraldia eskatu zuen udal talde honek, Ogasuneko zinegotziaren erantzunak ikuspegi teknikoago batekin alderatzeko. Aurrekontuan egitasmo honi diru sailak bideratzeko modu bereziaz galdetuta, zuzendariak erantzun zuen ohikoa dela administrazioan egitasmoek gaitasunak izatea, baina ez dela berak bultzatuko lukeen kudeaketa eredu. Bere ustez, horrelako gaitasunak gertatzen dira egitasmoak ez direlako behar beste zehatzak.

